

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Txingudiko hegaztiak

Lehen Hezkuntza 2. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

Isilik. Prismatikoak hartuta. Eta bat-batean, kolore-orban bat adarren artean. Zentzumenak areagotuko ditugu Txingudiko hegaztien unibertsoa ezagutzeko: ur gainazalean irristatzen direnak, landaretzarekin kamuflatzen direnak, marearteko eremuak miatzen dituztenak. Guzti hauei izena jartzen ikasiko dugu, haien habitatak ezagutzen eta haien erritmoak ulertzen.

Eta buru-belarri sartuko gara eraztungileen lanean, zientzia zehatz bezain liluragarri horretan. Agian, zortea badugu, urrutiko lurretatik etorri berri den hegazti batek bisita egin eta eraztuna jartzeko aukera izango dugu.